

DENBORA BIZITZA BADA, EGUNERO ZENBAT BIZI ZARA?

Urtero bezala, Martxoaren 8ak herritarren, gizarte eragileen eta instituzioen arreta eskatzen du. Emakume eta gizonen arteko benetako berdintasunaren ispiluaren aurrean paratzera behartzen gaitu eta horrek ematen digun irudia aztertzeraz, askotan ez baita behar bezain atsegina.

Mugimendu feministak eta emakumeen mugimenduak mendez mende borrokan aritu dira, zailtasun, ukazio eta erresistentzien aurrean. Azkeneko hamarkadetan, administrazio askok ere jardun dute emakume eta gizonen arteko eskubide, tratu eta aukera berdintasuna erdiesteko lanetan, eta orain lortutako aurrerapenen balantzea egin behar dugu. Baina era berean, arreta jarri nahi dugu, aurreratzen lagundu beharrean moteltze- edota atzeratze-prozesuetan sartzen gaituzten alderdi horietan. Gizarte demokratiko eta berdinagoen alde lan egiten dugunontzat oraindik lortu gabeko erronka eta konpromiso saihestezinak badaude eta horiei ere erreparatuko diegu. Esaterako, emakumeek emakume izate hutsagatik bizitza osoan, sistematikoki, jasaten dituzten egoera ikusezinak. Zertaz ari gara? Lan munduan sexuaren araberako banaketak sortzen dituen ondorioez eta eraginez.

2018an banaketa hori ikusten da ordaindu gabe egiten dituzten etxeko eta zaintzako lanetan, ezberdintasun handia baitago emakumeek gizonen aldean ematen duten denboran. Datu bat emate aldera, Nafarroan emakumeek 4 ordu eta 10 minutu ematen dituzte egunean, eta gizonek 2 ordu eta 36 minutu, azkeneko zifra ofizialekin bat. Baita lan jardueraren tasa txikiagoan ere (ia % 10 gutxiago), soldaten arteko aldean (emakumeek gizonen baino % 28,4 gutxiago kobratzen dute), eta lan-merkatuko bereizketa horizontal eta bertikalean ere, besteak beste. Fenomeno hori, erraz ikustekoa bada ere, askotan ikusezin bilakatzen da herritarren eta administrazioen begietan, eta horren ondorioz ezberdintasuna adierazteko modua natural bihurtzen da eta errepikatu egiten da, eta horrela mugatzen dira emakumeek bizitzeko eta lanerako dituzten aukerak zein beraien autonomia ekonomiko eta pertsonala.

Emakumeak, diru-sarrerei loturiko pobrezia gehien sufritzen dutenak izateaz gain, denboraren pobrezia gehien sufritzen dutenak ere badira. Horrek zer esan nahi du? Emakumeek gizonen baino askoz denbora gehiago ematen dutela etxeko eta zaintzako lanak egiten, eta horrek galera esanguratsua ekartzen dietela beraienezako denboran, atsedenean, aisialdian zein prestakuntzan ematen ahalko luketen astian. Denbora ongizatearen adierazleetako bat da, eta denbora-faltari buruz hitz egiten duen kontzeptu honek desberdintasun-arrakala markatzen du emakume eta gizonen artean.

Ezinbestekoa da agerian uztea eta dagokion dimentsioa ematea fenomeno horri, baldin eta gaurko egunean eta horrelakoetan aldarrikatzen dugun berdintasuna errealtate izatea nahi badugu. Gizonen ere zaintza-lanak parteka ditzaten bultzatu behar da nahiz horrek badakarren maskulinitatearen mandatu kulturala kolokan jartzea. Gure gizarteak justizia eta ekitatea lortze aldera aurrera egiteko bidean eragile aktibo eta arduratsuak izan nahi badugu honako prozesuetan esku hartu behar dugu: lanaren sexu banaketak, eta horren ondorioz emakumeek aisialdirako duten denbora faltak eragiten dituzten sozializazio prozesuak, horrekin batera emakumeek baldintza ekonomiko eta lan espektatiba eskasak izatea eragiten dituzten sozializazio prozesuak. Prozesu horiek guztiak antzeman eta horiengan esku hartu behar dugu.

Horregatik guztiagatik, toki-erakunde garen aldetik, honako konpromiso hauen alde egin nahi dugu:

- Berdintasun-politikak sustatzen jarraitzea tokiko erakundeetatik.
- Gure hiriko emakumeen behar zehatzak ikusarazten eta egun indarrean jarraitzen duten desberdintasun adierazpen guztiei dagozkien neurriak hartzen jarraitzea.
- Emakume eta gizonen arteko ezberdintasun egoera guztiak gainditzeko jarduerak ezartzea.
- Mugimendu feministari laguntzea bere borroka eta eskaeretan.